

Martin Ugalde, EHU-k Honoris Causa Doktore izendatu duen lehen kazetaria

Idoia Arozena

Gara, 1999-12-16: 45.

Euskarazko kazetarigintzan eredu eta aitzindari izan den Martin Ugalde Euskal Herriko Unibertsitateak Honoris Causa Doktore izendatu zuen atzo Donostia-ko Miramar Jauregian. Martin Ugalderekin batera, Pedro Migel Etxenikeri eta Juan Jose Goirienari EHUko urrezko dominak ezarri zitzaizkien. Martin Ugalderi informazioaren esparruan egindako lan handia eta berezi euskara komunikabideetan garatzeko egindakoa eskertu nahi izan zaio, Goirienari, berriz, unibertsitateari egindako ekarpena, eta Etxenikeri zientzien arloan burututako lana.

(...)

Ondoren, Martin Ugalde sartu zen auditoriora aitabitxitzat zuen Jose Manuel Susperregi katedradunak lagunduta. Andoaindarri "informazioaren esparruan egindako lan handia eta bereziki euskara komunikabideetan garatzeko egindakoa" eskertu nahi izan zioten izendapen honekin.

Euskal kazetaritzaz

Eta Martin Ugaldek ederki asko aprobetxatu zuen ekitaldia mende honetako euskal gizartearen historiaz zertzelada argi batzuk eman eta euskal kazetaritzaz hitz egiteko. Lehenik gurasoak gogora ekarri zituen, euskaldunak baina eskolarik gabeak; erbestea ere aipatu zuen eta, hirugarrenik, euskarak Euskal Herrian jasan behar izan dituen gabeziak, hezkuntzan, komunikabideetan eta kultur arloan, besteak beste.

Gabeziaz jositako egoera horretan urratsak eman direla eta, kazetaritza euskaldunaren eta bereziki Euskaldunon Egunkariaren lehen une haiek gogoan izan zituen Ugaldek. "Neroni tartean nintzela euskaldun erdaldundutako eta euskal kazetaritza gabeko euskaldun gazteez inguratuta, horien errebeldiak eta arrazoiak ematen duten adorearekin, honen babesean ausartu nintzen enpresa honetan sartzen orain hamar urte, eta sosik gabe, Mezenas baten bila, edo diru pixkakako asko! Hori bai, dirurik gabeko herri osoa zetorren bultzaka. Miraria zirudien!", esan zuen. "Gure Unibertsitateak badu eginbeharririk euskararen alde, irakaskuntza nagusienean! Halere, lorpen ederrak egin baditu ere, euskararen jauzi handi baten behar gorrian dago. Horretan saiatzeko ordua heldu da! Itxaropenaren ondoren ekintza beti!" aldarrikatuz amaitu zuen Andoaingo kazetariak hitzaldia.

(...)